

Martin Ugalde zenaren lezioa

[Egile ezezaguna]

Deia, 2004-10-05: 23.

Gaur ez du ezer idatziko eta euskal kultura eta euskara bera pittin bat umezurtzago izango da gaurtik aurrera. Egunero zeozer idatzi behar zuen hoietariko zen Martin Ugalde kazetari, idazle eta euskaltzale andoaindarra. Lasai joan daiteke Martin Ugalde, bere ametsa –egunero zertxobait (euskaraz) idaztea– aski eta soberan bete baitu. Eta horretaz landa bere garaikide frankok eta ondorengo belaunaldietako lagun askok euskaraz eta euskal ikuspegi batetik idatzi, mintzo, pentsatu eta jardun ahal izango dutelako. Hein handi batean berari zor zaio hori, eta horregatik hain zuzen bere "Pedrotxo" eleberriko protagonista bezain umezurtz sentitzen gara gaur euskaldunok.

Askotarikoak eta oparoak izan dira Martin Ugaldek euskalgintzaren eta abertzaletasunaren alde bere bizitzan egindako lanak. Guztiak aipatzea lan galanta zatekeen... Orogen gainetik, kazetaritzat zuen bere burua eta horren adierazle dira erbestean, batik bat Venezuelan, eta Euskal Herrian abiatu eta gauzatu dituen kazeta, aldizkari eta bestelako egitasmoak. Horien artean, aipatzekoa da DEIAko sortzaileetariko bat izan zela erbestetik etorri berritan. Euskarazko taldearen erredaktoreburu izan zen lagun ugari egin zituen erredakzioan. "Euskaldunon Egunkaria"ko sortzaileetakoa ere izan zen. Azken urteetan, artean gaixotasun latz batek jota. Auzitegi Nazionaleko epaile Juan del Olmok "Egunkaria kasua"rekin nahastu zuen eta bere kontu korronteak blokeatu egin zizkioten.

Ugalde idazlearen luma ere joria izan da. Titulu ugari ekarri ditu euskal plazara. Saiakeran bere mezua argia eta argigarria bazen, eta eleberrian humanoa eta bikaina, ipuingintzan maisua zen eta erreferente bat euskal narrazioan. Baina letretatik haratago, aktibista ipurterrea izan da, gizon konprometitua. EAJn –erbeste garai latzetan eta Franco ondoko urteetan– eta EAn –banaketaren ondotik– bere idatziekin uztartu ditu kultur alorreko eginkizunak eta militantzia politikoa. Jaurlaritzako Kultura sailburuorde izateraino. Alor askotan jarduna eta guztietan lan eskerga egina, baina beti gizakiaren eta herriaren alde egin du Martin Ugaldek. Horregatik gara bera hil baino apur bat umezurtzago. Baina beti geratuko zaigu bere gizatasunaren eta konpromisoaren adibidea. Gaitzerdi.